

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak. 2023ko urria

Sarrerek eta ostatu-gauak % 6tik gorako igoera izan dute Euskal AEko hotel-establezimenduetan, 2023ko urrian

Okupazio-maila, gelen arabera, % 74,5era iritsi da Euskal AE osoan, eta eguneko batez besteko tarifa % 9,3 igo da

Eustaten datuen arabera, **2023ko urrian** Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerek % 6,4ko igoera izan dute, eta ostatu-gauak % 6,7koa, urtetik urtera. Zehazki, 342.848 sarrera eta 672.345 ostatu-gau izan dira.

Sarrerren % 47,9 eta ostatu-gauen % 49,4 atzerritar jatorriko pertsonenak izan dira. Kasu horietan, sarrerek % 17,6ko igoera izan dute, eta ostatu-gauak % 19,5koa.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak, gualdiak eta batez besteko egonaldia. Urria 2023

	Sarrerak		Gualdiak		Batez-besteko egonaldia	
	2023/10	m/m-12 (%)	2023/10	m/m-12 (%)	2023/10	2022/10
EUSKAL AE	342.848	6,4	672.345	6,7	1,96	1,96
Estatukoak	178.468	-2,3	340.279	-3,4	1,91	1,93
Atzeritarrak	164.380	17,6	332.066	19,5	2,02	1,99
Araba/Álava	44.060	6,9	90.740	14,3	2,06	1,93
Estatukoak	30.487	2,9	62.262	7,7	2,04	1,95
Atzeritarrak	13.573	17,1	28.478	32,0	2,10	1,86
Vitoria-Gasteiz	31.465	8,4	70.013	20,5	2,23	2,00
Bizkaia	158.273	9,7	300.820	6,9	1,90	1,95
Estatukoak	83.645	0,8	149.120	-4,0	1,78	1,87
Atzeritarrak	74.628	21,8	151.700	20,4	2,03	2,06
Bilbao	103.999	4,2	205.877	4,9	1,98	1,96
Gipuzkoa	140.515	2,7	280.785	4,1	2,00	1,97
Estatukoak	64.336	-8,1	128.897	-7,5	2,00	1,99
Atzeritarrak	76.179	13,9	151.888	16,5	1,99	1,95
Donostia / San Sebastian	92.671	4,4	188.581	6,4	2,03	2,00

M/m12 Behatutako azken hilabeteen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2023ko Azaroaren 21a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Araban, 44.060 sarrera eta 90.740 ostatu-gau erregistratu dira, hau da, aurreko urteko urrian baino % 6,9 eta % 14,3 gehiago, hurrenez hurren. Bizkaian, berriz, sarrerek % 9,7ko igoera izan dute, eta ostatu-gauak % 6,9koa. Guztira, 158.273 sarrera eta 300.820 ostatu-gau izan dira. Azkenik, Gipuzkoan 140.515 sarrera erregistratu dira 2023ko urrian, hau da, 2022ko urrian baino % 2,7 gehiago. Ostatu-gauak, berriz, 280.785 izan dira, hau da, aurreko urteko hilabete berean baino % 4,1 gehiago.

Hiriburuei dagokienez, sarreren kopuruak % 8,4ko igoera izan du Gasteizen, % 4,4koa Donostian eta % 4,2koa Bilbon. Era berean, aurreko urteko urriarekin alderatuta, ostatu-gauak % 20,5 igo dira Gasteizen, % 6,4 Donostian eta % 4,9 Bilbon.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako batez besteko egonaldia 1,96 egunekoa izan da 2023ko urrian, hau da, aurreko urteko hilabete berekoaren antzekoa. Batez besteko egonaldiak ez du adierazten Euskal AEra etortzen diren bidaiarien egonaldiaren guztizko iraupena, gaua igarotzen duten establezimendu bakoitzean ematen duten egun kopurua baizik.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako betetze-mailak eta errentagarritasuna. Urria 2023

	Betetze-mailak (%)				Errentagarritasuna			
	plazen arabera		gelaka		ADR (eurotan)		RevPAR (eurotan)	
	2023/10	p.p. *	2023/10	p.p. *	2023/10	m/m-12 (%)	2023/10	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	61,7	1,8	74,5	2,9	111,54	9,3	83,06	13,8
Araba/Álava	57,0	1,9	71,8	1,9	92,37	2,2	66,35	4,9
Vitoria-Gasteiz	57,2	3,3	75,3	3,0	71,45	0,4	53,82	4,6
Bizkaia	60,2	3,0	74,0	4,2	108,40	11,9	80,18	18,6
Bilbao	66,2	2,3	82,5	5,1	121,37	11,5	100,07	18,9
Gipuzkoa	65,1	0,5	76,0	1,8	121,41	9,1	92,25	11,7
Donostia / San Sebastian	72,1	0,2	83,0	2,0	146,56	8,3	121,63	11,0

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2023ko Azaroaren 21a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Urrian, Euskal AE osoko okupazio-maila % 61,7ra iritsi da plazen arabera neurtuta, eta % 74,5era gelen arabera neurtuta. 2022ko urriarekin alderatuta, igoera 1,8 eta 2,9 portzentaje-puntukoa izan da, hurrenez hurren.

Euskal AEn, eguneko batez besteko tarifa edo ADRa ("logela bakarrik" erregimeneko gela bikoitz bainugeladunari aplikatua) 111,54 eurokoa izan da 2023ko urrian. Beraz, % 9,3ko igoera gertatu da aurreko urteko urriarekin alderatuta. ADRa 121,41 eurora iritsi da Gipuzkoan, 108,40 eurora Bizkaian eta 92,37 eurora Araban. Hiriburuei dagokienez, aldeak handiagoak izan dira. Izan ere, ADRa 146,56 eurokoa izan da Donostian, 121,37 eurokoa Bilbon, eta 71,45 eurokoa Gasteizen.

Euskal AEko hotel-establezimenduetan, RevPar edo gela eskuragarri bakoitzeko batez besteko diru-sarrerak 83,06 eurokoak izan dira 2023ko urrian, hau da, aurreko urteko hilabete berean lortutakoak baino % 13,8 handiagoak.

Informazio-oharra

Hoteletako ETHaren erantzun-tasa % **90,8koa** izan da 2023ko urrian. Eustatek eskerrak eman nahi dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei.

Euskal AEko turismoko datu-esploratzailea. Hotel-establezimenduak

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62